

NORK: GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZA
NORI: ZERBITZU-ERAKUNDEETAKO LANGILEEN ZUZENDARITZAK

Gaia: 2018-2019ko EPEko baimenak Prozesu guztiak 1. FASEA eta 2. FASEA

Laster, 2018-2019ko EPEari dagozkion hautatze-probak egingo dira, eta irizpide bateratuei jarraiki, jakinarazi nahi dugu, Osakidetza erakunde sanitarioetan egun lan egiten duten langileek parte har dezaten errazteko, horretan interesa duten langileek eskubidea izango dutela ondoren adierazten diren baimenak izateko, norberaren lan-ordutegia eta egin behar duen azterketa zein diren:

Lehenengoa.- 2018-2019ko EPEko azterketak egiteko baimena soilik emango da egun zerbitzu profesionalak ematen ari diren kategoria/lanpostu funtzionalak lortzeko deitzen diren probetara aurkezteko.

Bigarrena.- Baimen horien iraupena taula honetan zehaztutakoaren arabera zehaztuko da:

AZTERKETA	TXANDA	BAIMENA
GOIZEZ (<i>Hasiera ordua 9:00-10:00 bitartean</i>)	GAUA EGIN OSTEA	3 ORDU
GOIZEZ	GOIZEZ	7 ORDU
GOIZEZ (<i>Hasiera ordua 9:00-10:00 bitartean</i>)	ARRATSALDEZ	2 ORDU
GOIZEZ (<i>Hasiera ordua 13:00-14:00 bitartean</i>)	ARRATSALDEZ	5 ORDU
ARRATSALDEZ	GOIZEZ	2 ORDU
ARRATSALDEZ	ARRATSALDEZ	7 ORDU
ARRATSALDEZ	GAUA EGIN ONDOREN	2 ORDU

Hirugarrena - Azterketa teorikoa eta praktikoa lanaldi berean egiten duten fakultatiboen kasuan, baimenak honako hauek izango dira:

- Gaua egin ondoren: 3 ordu
- Goizeko txanda: 7 ordu
- Arratsaldeko txanda: 7 ordu

Laugarrena - 8:00etatik 20:00etara edo 9:00etatik 21:00etara lan egiten duten langileek, egun betetzen duten kategoria lortzeko deitzen diren probetara aurkezten badira, baimen berreskuratua izango dute, honako irizpide hauen arabera:

AZTERKETA	BAIMENA
GOIZEZ (Hasiara ordua 9:00-10:00 bitartean)	16 00etan lanean hastea
GOIZEZ (Hasiara ordua 13:00-14:00 bitartean)	Irteera-ordua 11:00etan
GOIZEZ (Hasiara ordua 17:00-18:00 bitartean)	Irteera-ordua 13:00etan

Kasu horretan, azterketa teorikoa eta praktikoa lanaldi berean egiten duten fakultatiboek lanaldi osorako baimena izango dute.

Bosgarrena.- Probaren egunean Etengabeko Arretako Guneetan (EAG) lan egin behar duten langileak beren lanpostura itzuli beharko dira azterketaren egun bereko 17:00etan edo 21:00etan, proba egun horretako 17:30ean egiten duten ala ez kontuan hartuta.

Lanetik irteten diren EAGko langileek hiru orduz aurreratu ahal izango dute irteera-denbora, probaren eguneko goizean.

Seigarrena.-Baimen errekuperatu hori izango dute, halaber, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren egungo enplegu publikoaren eskaintzan barne-sustapenaren bidez izena eman eta horretarako deitutako probetan parte hartzen duten langile finkoek.

Txanda librean aurkezten diren langileei aplikatu beharreko irizpide orokorren arabera gauzatuko da errekuperatutako baimen hori.

Zazpigarrena.- Era berean, gehitu behar da langile berak barne-sustapeneko txandan kategoria/lanpostu funtzional bat baino gehiago lortzeko probetara aurkeztu nahi badu, berreskuratutako baimen hori kategoria/lanpostu funtzional bakar bati baino ez litzaiokeela aplikatuko dagozkion probetan.

Zortzigarrena.- Prestakuntza sanitario espezializatuan dagoen pertsonal egonkorrari bigarren ataleko baimen berreskuratua aplikatuko zaio.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 8a

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de junio de 2022

Osakidetza

Sin./Fdo:  **Luisa Larrauri Ereñozaga**

GIZA BALIABIDEEN TAKO ZUZENDARITZA
GIZIA BALIABIDEEN TAKAN ZUZENDARIA
Humanos

OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA